

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2312 positibo guztira*

283 hildako

*Hernanin 55 Astigarragan 20

NAFARROAN

42 positibo berri
8335 positibo guztira

503 hildako

125 ospitalizatuta

Sendatuak EAEn:

Gipuzkoako Foru Aldundiak liztor beltzaren kabiak desaktibatzekeo kanpaina jarri du martxan

Hernanin eta Astigarragan batzuk desaktibatu dira eta helburua espezieak sortzen dituen kalteak murriztea da eta honen zabalkundea ekiditeko herritarrei kolaborazioa eskatu zaie.

URUMEA LIZTOR ASIATIKOA

Liztor beltzaren erreginek hibernatzen pasa dute negua eta udaberriarekin batera, neguko ezkutalekutik atera eta kabi berriak egiteari ekiten diete. Hori dela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak haien kabiak desaktibatzekeo kanpaina jarri berri du martxan. Suhiltzaileek, basozainek, Gipuzkoako Erlezainen Elkartekeo kideek eta Landa Garapen Elkartekeo, udaletako eta Aldundiko langileek osatzen dute lantaldea. Helburua, liztor

beltzak erlezaintzan, nekazari-tzan eta ingurumenean sortzen dituen kalteak murriztea da; baita pertsonen egiten dizkien ziztadak ekiditea ere. Horretarako, herritarrei kolaborazioa ere eskatzen zaie; liztor beltzaren kabi bat ikusiz gero Udaleria deitzeke eskaera egin du Aldundiak, protokoloa martxan jarri dadin.

Liztor beltzak buru beltza eta aurpegi laranja ditu; bertako liztorrengandik bereizten duena hankak dira, gorputzaren aldeko zatia beltza eta puntak horiak

baititu. Lehen habiak toki babes-tuetan kokatu ohi dira: teilatu-hegal azpian, ganbareta sabaian, balkoietako sabaian eta pertsiaren kaxetan, esaterako.

Garrantzitsua da lehen kabi hauek detektatzea eta 3.000 liztor izatera iritsi daiteke

Uztaila amaiera bitarte ikusten dira eta forma esferikoa dute, ia borobila. Oso garrantzitsua da lehen habia hauek detektatzea eta desaktibatzea, liztorrak ugaritzea eta zabaltzea ekiditen baita horrela.

Lehen habia suntsitu ezean handiagoak egiten dituzte, eta uda edo udazken parterako habia bakoitzean 3.000 liztor inguru izatera iritsi daitezke. Gainera, lehen habiak kentzea

errazagoa izaten da langileentzat, txikiak baitira, eta baliabide gutxiago eskatzen dituzte-lako: spraydun biozidarekin eta salabardoaren laguntzaz nahikoa izaten da askotan.

Iaz 845 kabi indargabetu ziren eta ilunabarrean egin behar da erregina bertan dagoenean

Aipagarria da, lehen habia hauek ilunabarrean suntsitu behar direla, egunez liztorrak janari bila baitabilta. Erregina kanpoan dagoela kenduz gero, honek beste habia bat eraikiko du eta esfortzu guztiak alferrikakoak izango lirateke. «Aldundian liztor beltzaren zabalkundea gelditzekeo eta haren eragin kaltegarriak murriztekeo lanean gabilta» azaldu du Arantxa Ariztimuño Mendia eta Natu-

ra Ingurumeneko Zuzendariak. «Eragile guztien elkarlanari esker azken urteetako joera beherranzkoa izan da; iaz esaterako, 845 habia indargabetu ziren Gipuzkoan».

Liztor beltzak, ondutako fruitak hozkatzen ditu, erleak eta bestelako xomorro ugari erasotzen ditu, bertakoa den liztorrearekin lehiatzen du eta polinizatzaileak diren espezieen jokabidea eraldatzen du. Horrenbestez, ondorioak oso nabarmenak dira erlezaintzan eta nekazari-tzan, kalteak sortzeaz gain, ingurumenean eragiten baitute.

2020ko kanpaina apirilaren 22an jarri zen martxan eta Pasaia, Astigarraga, Zarautz, Lezo, Hernani, Errenteria, Oiartzun, Arrasate eta Sorluzen desaktibatuta dira. **K**

Joxe Ramon Beroitz hil da, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen sortzaileetako bat besteak beste

«Joan zaigu hernaniar bat benetan bikaina», nabarmendu dute Hernaniko Odol Emaileen Elkartetik. Atzo hil zen, 73 urterekin.

HERNANI HERIOTZA

Joxe Ramon Beroitz hernaniarra hil zen atzo, 73 urte zituela. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko sortzaileetako bat izan zen, eta Hernaniko odol emaileen ordezkaria orduan: «orain dela 55 bat urte hasiko zen odol emaile bezala. Erresidentzian egiten zituzten orduan, ez baitzegoen elkarterik oraindik. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartea sortu zenean, bera ere tartean zegoen, sortzaileetako bat izan zen. Eta Hernaniko ordezkari hartu zuen berak. Urte pila bat eman zituen lan horretan», nabarmendu dute Hernaniko Odol

Emaileen Elkartetik.

Gogora ekarri dute, gainera, garai batean «kalean topatzean» ematen zela herritarrei, estrakzioen deialdien berri; edo beste-la, etxez etxe joaten zela, abixua ematera: «hori zen, gutxieneko bat ziurtatzeko, eta garai batean orain baino estrakzio gehiago lortzen genituen, 90-100 inguru hilean. 103 estrakzioekin daukagu errekorra Hernanin, bi aldiz iritsi gara kopuru horretara».

Odol emaileen bazkaria antolatzekeo ere, «bera aritzen zen saltsan». Eta «azkeneko momentura arte» egon da laguntzen, nabarmendu dutenez. Kro-



Joxe Ramon Beroitz

nikara ere, Beroitzek ekartzen zituen estrakzioen deialdiak eta emaitzak, hilero hilero. Egindako lana eskertu nahi dio, Kronikak ere.

«Oso izaera gozoa zeukan, borondate hutsez egiten zuen dena»

Baina odol emaileetan bakarrik ez, beste makina bat kontutan ere aritzen zen hernaniarra: «parrokiko abesbatzan egin zuten dozenaka urte; Ohitura Zaharrak abesbatzan ere bai, Santa Ageda bezpera eta Urte Zaharreko erronda antolatzen; Ttapa Ttapan ere bai...», nabarmendu du Joxe Mari Elordik: «Odol Emaileen Elkartean bezala, horietan guztietan ere berak sartu ninduen. Denak inbolukratzen zituen Joxe Ramonek».

Odol Emaileen Elkartetik azpimarratu dute, Beroitzek «be-rezkoa» zuela «laguntzeko eta parte hartzeko gogo», eta beti azaltzen zela prest edozein lan egiteko, «beti bere borondate onenarekin eta muxutruk». «Joan zaigu hernaniar bat be-

netan bikaina. Izaera oso gozoa zeukan, eta borondate hutsez egiten zuen dena. Asko mugitu eta egin du herri honetan, jende asko animatu du, hamaika kontutan aritu da, eta ez du inoiz nahi izan bere lana aipatzerik», diote.

Anekdotak gisa, Elordik aipatu du, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko urteroko asanblada batean lortutakoa: «urtero joaten ginen biok, Hernaniren ordezkari. Eta gogoan dut guk lortu genuela, 65 urtetik gorakoek odola ematen jarraitu ahal izatea, osasunez ondo bazeuden. Urte batean proposatu genuen, eta ez zen aurrera atera; baina hurrengoan berriro eskatu, eta onartu egin zen. Eta horretarako ere, bera aritu zen lanean. Oso gizon saiaturia zen, beti zeukan kezka hori, gauzak konpontzeko eta hobetzeko». **K**

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

JAXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

EGURALDIA
GAUR Ildo beretik aroa. Orokorrean zerua nahiko garbi agertuko bada ere, goizean kantauri isurialdean lainogune batzuk ager litezke. Haizea iparraldetik ibiliko da. **Min.11° / Max.19°**

BIHAR Eguzkitsua eta tenperaturak bizpahiru gradu gora egingo du, batez ere barnealdean eta zonalde honetan aisa gaitutiko dute termometrok 25 °C-ko muga. **Min.13° / Max.21°**

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia
Auzo Urdin

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEAK
EUSKARA ELKARTEA

GOZUETAKO FORU ALDUZKARIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Formakuntza ikastaroak, gaur

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Astigarragako Aztifemiak talde feministak formakuntza antolatatu du Harago aholkularitzaren eskutik eta Astigarragako udalaren babesarekin. Gaur hasita, datozen bost asteartean antolatatu dira: gaur eta maiatzak 26, eta ekainak 2, 9 eta 16, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Horieta, landuko dute komunikatzeko gaitasuna eta emakumei zuzendutako ikastaroa da, «barne eta kanpo ahalduntzerako elkar ikasketa eremua». Zoom programa erabilita, internet bidez egingo dituzte saioak; eta parte hartzeko, izena eman behar da, aldezturik: aztifemiak@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.

51 spot aurkeztu dira lehiaketara

URUMEA LEHIAKETA

Euskerazko spot lehiaketa ez da aurten gelditu eta 2020koa oso berezia izan da, konfinamenduak eta alarma egoerak pare-parean hartu du eta izugarria izan da egoera honetan ere jaso den lan kopuru handia. Guztira 51 lan aurkeztu dira, aurten ere Euskal Herriko leku askotakoak: Ibarra, Hernani, Durango, Tolosa, Getxo, Aretxabaleta, Eibar, Gasteiz, Irun, Eskoriatza, Berriozar, Azkoitia, Ordizia, Txantrea, Zizurkil, Bilbo, Gueñes, Bergara, Arrasate, Aramaio... Aurkeztutako lanen artean, 18 urtetik beherakoekin eginiko 24 lan jaso dira eta 18 urtetik gorakoekin eginiko 27 lan.

Edalontzirako irudi lehiaketa, martxan

ASTIGARRAGA SAGARDOA

2020ko uztailearen 26an ospatuko da Santa Ana egunak 45 urte beteko dituen eta Sagardoaren Lurraldeak lehiaketa berezi bat antolatatu du jendearen parte-hartzea sustatzeko: marrazki lehiaketa bat martxan jarriko da eta irabazlearen irudia Santa Ana eguneko Sagardo Eguneko edalontzietan serigrafiatuko da.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE
'MITXIRRIKA'
Atzo hil zen, 73 urte zituela.

Haren emaztea: Arantza Insausti; seme-alabak: Iñigo eta Kistiñe, Imanol; biloba: Anher; gurasoak: Ramon (†) eta Pantxika (†); ezkon gurasoak: Joxe Ramon (†) eta Maria (†); anai-arrebak: Paki (†) eta Jesus (†), Manoli eta Patxi (†), Joxe (†) eta Poli, Lourdes eta Julio; ilobak: Ramon (†), Joxe Martin, Jesus, Mirari, Arantxa, Felipe, Axier, Jon, Amagoia, Iulen eta Idoia; lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

OHARRA: Gorputza **HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN** bihar, asteazkena, egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE
'Mitxirrika'

Senar, aita, aiton, lagun eta pertsona bezala eman diguzun guztia ez degu inoiz ahaztuko. Bihotzetik eskerrik asko, Mitxi.

MAITE ZAITUGU, ETXEKOAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE

Nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez dezu alde egingo gure bihotzetatik

ARROZPIDETAR LEHENGUSUAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE
'Mitxirrika'

Maite zaitugu osaba

BEROITZ-TAR ILOBAK: RAMON (†), JOXEMARTIN, ASIER, IKER, JEXUX, MIRARI, ARANTXA ETA FELIPE

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE

Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean

HERNANIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

AITONA
Zure maitasun-erloguntza, umorea eta zurekin ikasitako guztia nerekin geldituko. Eshenik asko aitona niretzat beti prest egoteagatik. Maite zaitut.
Anher Beroitz.

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE

Izate baten irudi agur lagun kideari, lagun artean izan zintugun lagun ta suziri. Adar bat zaio erori sendoa zen enberrari zure oroitzua gelditzen zaigu lekuko eta agiri.

SAN JOAN KONPARTSA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE
Atzo hil zen, 73 urte zituela

Orain arte bezala, gero ere elkartuko gaituk

1967KO KINTOAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

JOXE RAMON BEROITZ ARROZPIDE

Besarkada handi bat familiari eta gure lankide den Imanoli Udaltzaingoaen partez

HERNANIKO UDALTAINGOA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

ESKERTZA
Juan Cuesta Ossorio
Orain egun gutxi hil zen

Juanen familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei. Hernaniko Zaharren Egoitza ere eskertu nahi genuke eman dion zaintzarengatik.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 19an

biokbi optika

Alejandra Alcibar **Antziola 14**
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia **Telf: 943 33 68 86**

GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EHINGO DIOGU MAIATZAREN 11N, ASTELEHENA, COVID-19REN AURKAKO SEGURITASUN-NEURRI GUZTIEKIN

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu aldezturik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.